

BIZKAIAN TRIBUTU ITUNDUAK DIRELA-ETA BILDUTAKOA

2022KO MARTXOA

I. ZIFRA GLOBALAK

a) Bildutako zenbateko likido osoa

Aurtengo martxoan, tributu itunduak direla-eta bildutako zenbateko metatuak % 14,7ko gorakada izan du, iazko urtearekin alderatuta. Guztira, 2.259,2 milioi euro bildu dira; 2021.urtean, berriz, 1.970,4 milioi euro bildu ziren. Horrek diru-bilketa likidoan 288,9 milioiko alde positiboa dakar; gehikuntza hori ekitaldirako aurrekontuaren guztizko kopuruaren (8.386,9 milioi euro) % 26,9 da.

Emaitzak aztertzean, kontuan hartu behar da bi ekitaldietako hileko bilketa-ziurtagirietan jasotako zifren homogeneotasunik eza, pandemia-egoerak irauten duelako hartzen diren neurrien ondorioz, nahiz eta martxoan metatutako emaitzan neutralizatuta egon. Bestalde, nabarmena da elektrizitatearen fiskalitatearekin lotutako neurrien inpaktua; neurriok eragina izan dute energia elektrikoaren ekoizpenaren gaineko zerga dela-eta 2021eko laugarren hiruhilekoan bildutako zenbatekoan, bai eta elektrizitatearen gaineko zergan bildutakoan ere.

Hil honetan Estatuarekin doikuntzarik egin behar ez denez (apirilera arte foru-aldundien artean ere ez dira lehen doikuntzak egiten), gestio propioagatik bildutako kopurua ehuneko berean gehitu da, % 14,7.

MARTXOAREN BUKAERAN METATUTAKO DIRU-BILKETA				
mila eurotan	2022	2021	diferen.	%
Diru-bilketa likidoa	2.259.246,4	1.970.389,1	288.857,3	14,7
FFAAen barneko doikuntza guztira	0,0	0,0	0,0	
Berezko kudeaketaren tributu itunduak	2.259.246,4	1.970.389,1	288.857,3	14,7
Gutzizko doikuntza Estatuarekin	0,0	0,0	0,0	
TRIBUTU ITUNDUAK GUZTIRA	2.259.246,4	1.970.389,1	288.857,3	14,7
Gauzatze-ehunekoa	%26,9	%26,8		



b) Gestio propioaren ondorioz bildutako zenbateko gordina eta itzulitako kopuruak

Gestio propioko zerga itunduen bidez bildutako kopuru gordina 2.558,4 milioi euro izan da, urtebete lehenago lortutakoa baino % 15,9 gehiago; izan ere, orduan 2.207,5 milioi bildu ziren. Bestalde, itzulitako kopuruetan ere gehikuntza gertatu da (% 26,1); iaz 237,2 milioi euro itzuli ziren; aurten, berriz, 299,1 milioi. Inguruabar bi horien ondorioz, diru-bilketa likidoak % 14,7ko gehikuntza izan du.

MARTXOAREN BUKAERAN METATUTAKO DIRU-BILKETA				
mila eurotan	2022	2021	diferen.	%
Diru-bilketa gordina	2.558.390,9	2.207.545,6	350.845,4	15,9
Itzulitakoak	-299.144,5	-237.156,5	-61.988,0	26,1
Berezko kudeaketaren tributu itunduak	2.259.246,4	1.970.389,1	288.857,3	14,7

II. KONTZEPTU NAGUSIEN BILAKAERA

Zuzeneko tributuen ondoriozko diru-bilketa likidoa % 2,0 handiagoa izan da aurreko ekitaldian lortutakoa baino: aurten 1.031,1 milioi euro bildu dira, eta gorakada izan dute bai diru-bilketa gordinak (% 2,8), bai itzulitako kopuruak (% 75,7). Zeharkako tributuetan, berriz, 1.215,5 milioi euro bildu dira, hau da, % 28,0 gehiago. Igoera bildutako zenbateko gordinan (% 27,1) zein itzulitako kopuruetan (% 23,2) jazo da. Tasak eta beste diru-sarrera batzuk %27,5 handiagoak izan dira; zehazki, 12,6 milioi euro bildu dira aurten, eta aurreko ekitaldian, berriz, 9,9 milioi.

MARTXOAREN TRIBUTU ITUNDUEN DIRU-BILKETA									
mila eurotan	Diru-bilketa gordina			Itzulitakoak			Diru-bilketa likidoa		
	2022	2021	diferen.	2022	2021	%	2022	2021	%
Zuzeneko zergak	1.051.057,1	1.022.414,5	2,8	19.985,4	11.372,8	75,7	1.031.071,7	1.011.041,7	2,0
PFEZa	941.749,3	897.934,7	4,9	6.625,6	5.902,8	12,2	935.123,7	892.031,9	4,8
Sozietateen gaineko zerga	67.027,2	73.337,8	-8,6	1.715,7	3.346,6	-48,7	65.311,6	69.991,3	-6,7
Gainerako zuzeneko zergak	42.280,5	51.141,9	-17,3	11.644,2	2.123,4	448,4	30.636,4	49.018,5	-37,5
Zeharkako zergak	1.493.246,3	1.174.793,1	27,1	277.699,7	225.348,7	23,2	1.215.546,6	949.444,4	28,0
BEZa	1.094.015,6	782.924,1	39,7	276.680,2	224.107,7	23,5	817.335,4	558.816,4	46,3
BEZa barneko doikuntza				0,0	0,0		0,0	0,0	0,0
Zerga bereziak	350.237,9	350.635,7	-0,1	868,6	977,4	-11,1	349.369,4	349.658,2	-0,1
Gainerako zeharkako zergak	48.992,7	41.233,4	18,8	150,9	263,5	-42,7	48.841,9	40.969,8	19,2
Tasak eta Bestelako Sarrerak	14.087,5	10.337,9	36,3	1.459,4	435,0	235,5	12.628,2	9.902,9	27,5
BEREZKO KUDEAKETA GUZTIRA	2.558.390,9	2.207.545,6	15,9	299.144,5	237.156,5	26,1	2.259.246,4	1.970.389,1	14,7
Doikuntzak Estatuarekin	0,0	0,0		0,0	0,0		0,0	0,0	
Doikuntzak BEZa	0,0	0,0		0,0	0,0		0,0	0,0	
Doikuntzak Zerga bereziak	0,0	0,0		0,0	0,0		0,0	0,0	0,0
TRIBUTU ITUNDUAK GUZTIRA	2.558.390,9	2.207.545,6	15,9	299.144,5	237.156,5	26,1	2.259.246,4	1.970.389,1	14,7



a) PFEZa

lazko martxoarekin alderatuta, PFEZaren diru-bilketa likidoak % 4,8 egin du gora, batetik, diru-bilketa gordinak % 4,9ko gorakada izan duelako, eta, bestetik, itzulitako kopuruek gorakada izan dutelako (% 12,2).

Zergaren osagaiek bilakaera ezberdina izan dute. Gora egin dute lanbide-, enpresa- edo arte-jardueren ordainketa zatikatuak (% 27,2), lan-etekinen gaineko atxikipenak (% 6,8) eta, neurri txikiagoan, higiezinaren kapitalaren etekinen gaineko atxikipenak (% 0,5). Hala, gutxitu egin dira kapital higigarriaren etekinen gaineko atxikipenak (-%22,8), ondare-irabazien gaineko atxikipenak (-%4,7) eta sarien gaineko karga bereziak; azken hori dela-eta bildutakoa 0,5 milioira erori da, aurreko ekitaldiko 4,1 milioietatik. Bestalde, kuota diferentzialak 5,4 milioiko emaitza positiboa izan du; aurreko urteko emaitza ere positiboa izan zen, baina 8,6 milioi eurokoa.

b) Sozietateen gaineko zerga

Sozietateen kuota diferentziala % 47,3 gehitu da (% 21,0 gehitu da bildutako zenbateko gordina eta 15,7 milioi eskuratu dira; iazko kopurua, berriz, 12,9 milioi euro izan zen). Itzulketen bolumena, 1,2 milioi, % 61,6 jaitsi da. Aurreko epigrafean aipatu diren gainerako zergak kontuan hartuta, zergaren zioz bildutakoa % 6,7 gutxitu da; izan ere, 2021eko martxora arte lortutakoa 70,0 milioi izan zen, eta ekitaldi honetan bildutakoa, berriz, 65,3 milioi izan da.

c) Gainerako zuzeneko zergak

Gainerako zuzeneko zergetan bildu den kopuru likidoa % 37,5 gutxitu da; joan den urteko martxora arte, 49,0 milioi bildu ziren, eta aurten, berriz, 30,6 milioi. Ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga da emaitza positiboa izan duen bakarra (% 48,2). Aitzitik, murriztu egin dira oinordetzen eta dohaintzen gaineko zerga (-%41,8), ondarearen gaineko zerga (aurreko ekitaldiko 0,7 milioitik egungo -8,5 milioira igaro da) eta energia elektrikoaren ekoizpenaren gaineko zerga (-%101,1), 2021eko laugarren hiru hilabeterako dagokion zerga etetearen ondorioz, elektrizitatearen prezioaren hazkunde neurrigabea arintzeko neurri gisa hartu dena.

d) BEZa

BEZari dagokionez, % 46,3 gehiago bildu da: iaz, 558,8 milioi euro bildu ziren, eta, aurten, 817,3 milioi bildu dira orain arte. Bilakaera positiboa bilketa gordinaren % 39,7ko igoerari dagokio, 782,9 milioitik 1.094,0 milioi eurora igo baita, pandemia aurreko mailatik haragoko prezio-gorakadaren eraginez. Itzulketak, aldiz, % 23,5 hazi ziren.

e) Zerga bereziak

Aurreko ekitaldiarekin alderatuta, % 0,1 egin du behera zerga berezien diru-bilketak, diru-bilketa gordinen eta itzulketetan izandako beherakaden ondorioz; (-% 0,1) eta (-%11,1)



gutxiago bildu da, hurrenez hurren. Igo egin dira alkoholaren (% 25,7), hidrokarburoen (% 0,8), garagardoaren (% 30,8) eta tabako-laboreen (% 10,5) bilketak, eta jaitsi egin da elektrizitatearen bilketa (-%81,6), elektrizitatearen prezioari eusteko hartutako neurrien eraginpean.

f) Gainerako zeharkako zergak

Gainerako zeharkako zergen kasuan, % 19,2ko igoera izan da, guztira. Zehazki, diru-bilketa igo egin da ondare-eskualdaketen gaineko zergan (% 18,9), egintza juridiko dokumentatuetan (% 33,7), berotegi-efektuko gas fluordunen gaineko zergan (% 41,3) eta aseguru-primen gaineko zergan (% 25,7), eta murriztu egin dira garraiobide jakin batzuen gaineko zerga (-%15,2) eta joko-jardueren gaineko zerga (-% 46,4).

g) Tasak eta beste sarrera batzuk

Tasen eta beste sarrera batzuen zioz bildutakoak % 27,5eko igoera izan du; 9,9 milioi eurotik ekitaldi honetan bildutako 12,6 milioi eurora igo da. Joko-tasak % 200,3 igo dira, eta horren ondorioz osagai guztiak erregistratu dira, bai bingo-jokoarenak (% 307,7), bai txartel eta beste apustu batzuenak (% 25,9), baina batez ere makina eta aparatu automatikoenak, 1,2 milioitik 4,5 milioira igaro baitira (% 278,3). Aitzitik, III. kapituluko gainerako kontzeptuek behera egin dute: premiamendu-errekarguak (-%19,4), zerga-zehapenak (-%16,1) eta berandutze-interesak (-%11,0).

h) Estatuarekiko doikuntzak

Arestian adierazi den bezala, apirilera arte ez dira egiten urteko lehen doikuntzak.



TRIBUTU ITUNDUAK DIRELA-ETA BILDUTAKOA. Aur. ekitadiarekin alderatzea
RECAUDACIÓN TRIBUTOS CONCERTADOS. Comparación ej. anterior

2022

Aldiak: urtarrila-martxo
 Periodos: enero-marzo

(euroak / euros)

Deskribapena Descripción	Bilketa Garbia Recaudación Neta		Diferentzia Diferencia	Gehik %Incr	Bilk.Aurrek Pto.Recaud.	Bet.% %Ejec
	2022	2021				
ATXIKIPENAK: NORBERE LAN-ERRENTAK / RETENCIONES RENTAS DE TRABAJO	857.231.167	802.632.656	54.598.511	6,8	3.020.000.000	28,4
ATXIKIPENAK: KAPITAL HIGIGARRIAREN ETEKINAK / RETENCIONES RDTOS CAPITAL MOBILIARIO	30.189.786	39.121.299	-8.931.513	-22,8	88.000.000	34,3
ATXIKIPENAK: KAPITAL HIGIEZINAREN ETEKINAK / RETENCIONES RDTOS CAPITAL INMOBILIARIO	11.445.672	11.384.407	61.265	0,5	48.000.000	23,8
ONDARE IRABAZIEN GAINKO ATXIKIPENAK / RETENCIONES GANANCIAS PATRIMONIALES	9.217.625	9.667.293	-449.667	-4,7	32.000.000	28,8
SARIEN GAINKO KARGA BEREZIA / GRAVAMEN ESPECIAL SOBRE PREMIOS	523.488	4.079.998	-3.556.509	-87,2	25.000.000	2,1
LANBIDE, ARTE ETA ENPRESA JARDUEREN ZATIKAKO ORDAINKETAK / FRAC. ACT. PROFES. EMPRES. Y ARTIS	21.102.723	16.586.675	4.516.048	27,2	80.000.000	26,4
PFEZ KUOTA DIFERENTZIAL / CUOTA DIFERENCIAL IRPF	5.413.248	8.559.594	-3.146.346	-36,8	-11.000.000	*
PFEZ GUZTIRA / TOTAL I.R.P.F.	935.123.709	892.031.921	43.091.788	4,8	3.282.000.000	28,5
ATXIKIPENAK: KAPITAL HIGIGARRIAREN ETEKINAK / RETENCIONES RDTOS CAPITAL MOBILIARIO	30.189.773	39.121.283	-8.931.511	-22,8	88.000.000	34,3
ATXIKIPENAK: KAPITAL HIGIEZINAREN ETEKINAK / RETENCIONES RDTOS CAPITAL INMOBILIARIO	11.445.581	11.384.308	61.273	0,5	48.000.000	23,8
ONDARE IRABAZIEN GAINKO ATXIKIPENAK / RETENCIONES GANANCIAS PATRIMONIALES	9.217.624	9.667.291	-449.667	-4,7	32.000.000	28,8
SOZIJATEAK KUOTA DIFERENTZIALA / CUOTA DIFERENCIAL DE SOCIEDADES	14.458.607	9.818.381	4.640.225	47,3	451.000.000	3,2
BALANTZE-EGUNERATZEA / ACTUALIZACIÓN DE BALANCES						
SOZIJATEAK GUZTIRA / TOTAL SOCIEDADES	65.311.585	69.991.264	-4.679.679	-6,7	619.000.000	10,6
EZ-EGOILARREN ERRENTAREN GIZ / IMPUESTO S/RENTO NO RESIDENTES	21.410.660	14.450.810	6.959.850	48,2	24.300.000	88,1
ONORDETZEN ETA DOHAINTZEN GIZ / IMPUESTO SOBRE SUCESIONES Y DONACIONES	17.732.959	30.447.602	-12.714.643	-41,8	86.400.000	20,5
ONDAREAREN GAINKO ZERGA / IMPUESTO SOBRE EL PATRIMONIO	-8.470.771	675.973	-9.146.744	-1.353,1	82.000.000	*
KREDITU ERAKUNDEETAKO GORDAILUEN GIZ / IMPTO. S/DEPOSITOS EN ENTIDADES DE CREDITO					17.300.000	
ENERGIA ELEKTRIKOAREN EKOIZPENAREN GIZ / IMPTO S/PRODUCCIÓN ENERGIA ELÉCTRICA	-36.481	3.444.135	-3.480.616	-101,1	20.000.000	*
IRAUNGITAKO ZUZENEKO ZERGAK / IMPUESTOS EXTINGUIDOS DIRECTOS						
BESTELAKO ZUZENEKO ZERGAK GUZTIRA / TOTAL RESTO IMPUESTOS DIRECTOS	30.636.368	49.018.520	-18.382.152	-37,5	230.000.000	13,3
ZUZENEKO ZERGAK GUZTIRA / TOTAL IMPUESTOS DIRECTOS	1.031.071.662	1.011.041.706	20.029.956	2,0	4.131.000.000	25,0
BEZ: KUDEAKETA PROPIOA / IVA GESTIÓN PROPIA	817.335.397	558.816.396	258.519.001	46,3	2.069.013.400	39,5
EKARPENEN LEGEAREN ARABERAKO BEZ-DOIKUNTZA / IVA AJUSTE LEY APORTACIONES						
ONDARE ESKUALDAKETEN GIZ / IMPTO. TRANSMISIONES PATRIMONIALES	21.654.923	18.207.378	3.447.545	18,9	92.000.000	23,5
EGINTZA JURIDIKO DOKUMENTATUTEN GIZ / IMPTO. ACTOS JURIDICOS DOCUMENTADOS	6.745.521	5.045.040	1.700.481	33,7	19.500.000	34,6
GARRAOBIDE JAKIN BATZUEN GIZ / IMPTO. S/DETERMINADOS MEDIOS TRANSPORTE	2.531.139	2.983.480	-452.341	-15,2	12.000.000	21,1
ZERGA BEREZIAK: KUDEAKETA PROPIOA / IMPTOS. ESPECIALES GESTIÓN PROPIA						
ALKOHOL ETA EDARI ALKOHOLDUNAK / ALCOHOL Y BEBIDAS DERIVADAS	45.903	36.506	9.397	25,7	1.873.963	2,4
TARTEKO EKOIZKINAK / PRODUCTOS INTERMEDIOS	528	109	420	386,9	141.637	0,4
HIDROKARBURUAK / HIDROCARBUROS						
Barne eragiketak(tasa autonomikoa salbu) / Op. interiores(excl.Tipo autonómico)	311.649.247	309.142.417	2.506.830	0,8	793.642.500	39,3
Tasa autonomikoa / Tipo autonómico						
TABAKO LANAK / LABORES DE TABACO	36.240.359	32.793.350	3.447.009	10,5	171.326.000	21,2
GARAGARDOA / CERVEZA	21.803	16.670	5.133	30,8	1.007.800	2,2
ELEKTRIZITATEA / ELECTRICIDAD	1.411.515	7.669.172	-6.257.657	-81,6	24.691.100	5,7
HIDROKARBURUEN TXIKIZKAKO SALMENTEN GIZ / IMPTO. S/VENTAS MINORISTAS HIDROCARBUROS	-2.638	-14.312	11.674	81,6		*
ASEGURU PRIMEN GAINKO ZERGA / IMPTO. S/PRIMAS DE SEGUROS	16.902.212	13.442.759	3.459.454	25,7	52.000.000	32,5
JOKU JARDUERAREN GAINKO ZERGA / IMPTO. S/ ACTIVIDADES DE JUEGO	509.336	950.579	-441.243	-46,4	4.500.000	11,3
BEROTEGI-EFEKTUOKO GAS FLUORADUNEN GIZ / IMPTO. S/GASES FLUORADOS EFECTO INVERNADERO	501.369	354.906	146.463	41,3	1.300.000	38,6
IRAUNGITAKO ZEHARKAKO ZERGAK / IMPUESTOS EXTINGUIDOS INDIRECTOS						
ZEHARKAKO ZERGAK GUZTIRA / TOTAL IMPUESTOS INDIRECTOS	1.215.546.613	949.444.448	266.102.166	28,0	3.242.996.400	37,5
JOKO TASAK / TASAS DE JUEGO						
BINGOA / BINGO	554.105	135.912	418.193	307,7	1.200.000	46,2
MAKINA ETA APARATU AUTOMATIKOAK / MÁQUINAS Y APARATOS AUTOMÁTICOS	4.541.226	1.200.537	3.340.689	278,3	20.000.000	22,7
TXARTELAK ETA BESTELAKO APUSTUAK / BOLETOS Y OTRAS APUESTAS	781.143	620.518	160.625	25,9	3.200.000	24,4
JOKO-TASAK GUZTIRA / TOTAL TASAS DE JUEGO	5.876.474	1.956.967	3.919.507	200,3	24.400.000	24,1
PREMIAMENDU ERREKARGUA / RECARGOS DE APREMIO	2.126.708	2.639.073	-512.365	-19,4	12.000.000	17,7
BERANDUTZA KORRITUAK / INTERESES DE DEMORA	3.019.642	3.393.253	-373.610	-11,0	17.300.000	17,5
ZEHAPENAK / SANCIONES	1.605.328	1.913.641	-308.314	-16,1	13.000.000	12,3
TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK GUZTIRA / TOTAL TASAS Y OTROS INGRESOS	12.628.152	9.902.934	2.725.218	27,5	66.700.000	18,9
ESTATUAREKIN ITUNDUTAKO TRIBUTUAK GUZTIRA DOIKUNTZARIK GABE / TOTAL TRIBUTOS CONCERTADOS SIN AJUSTES ESTADO	2.259.246.427	1.970.389.088	288.857.340	14,7	7.440.696.400	30,4
BEZ: DOIKUNTZAK / AJUSTES IVA					685.304.000	
BEZ INPORTAZIOAK / IVA IMPORTACIONES					372.886.000	
BEZ BARRUKO ERAGIKETAK / IVA OPERACIONES INTERIORES						
BEZ DOIKUNTZAK GUZTIRA / TOTAL AJUSTES I.V.A.					1.058.190.000	
ZERGA BEREZIAK DOIKUNTZA / AJUSTE IMPUESTOS ESPECIALES						
ALKOHOL ETA TARTEKO EKOIZKINEN GIZ.B. DOIKUNTZA / AJUSTES IMP. S/ALCOHOL Y PROD. INTERMEDIOS					95.741	
INPORTAZIOAK / IMPORTACIONES					23.179.400	
BARRUKO ERAGIKETAK / OPERACIONES INTERIORES					10.078	
HIDROKARBUREN GIZ.B. DOIKUNTZA / AJUSTES IMP. S/HIDROCARBUROS					-250.438.300	*
INPORTAZIOAK / IMPORTACIONES						
BARRUKO ERAGIKETAK / OPERACIONES INTERIORES						
TASA AUTONOMIKOA / TIPO AUTONÓMICO						
TABAKO LANEN GIZ.B. DOIKUNTZA / AJUSTES IMP. S/LABORES DE TABACO					15.620.900	
BARRUKO ERAGIKETAK / OPERACIONES INTERIORES						
GAGARDOAREN GIZ.B. DOIKUNTZA / AJUSTES IMP. S/LA CERVEZA					131.014	
INPORTAZIOAK / IMPORTACIONES					10.884.240	
BARRUKO ERAGIKETAK / OPERACIONES INTERIORES						
ZERGA BEREZIAK DOIKUNTZAK GUZTIRA / TOTAL AJUSTES IMPUESTOS ESPECIALES					-209.516.927	*
ZERGA ITUNDUAK GUZTIRA / TOTAL TRIBUTOS CONCERTADOS	2.259.246.427	1.970.389.088	288.857.340	14,7	8.298.369.473	27,2

* Garrantzi biko ratioa / Ratio no significativo